

EH Bilduk gertuago ditu EAJ eta Elkarrekin Ahal Dugu

Botoak galdu arren, Tolosaldean lehen eta bigarren postuei eutsi diete EH Bilduk eta EAJ alderdiek Espainiako hauteskundeetan, hurrenez hurren %31 eta %28a eskuratuz; Elkarrekin Ahal Dugu hirugarrena izan da botoen %26a jasoz // 2-3



SEGA AZKARTASUNEAN, FIN

Gipuzkoako Azkartasuneko Sega Txapelketa jokatu da eta Alatzne Etxaburuak eta Julen Gabirondok irabazi dute; Ainara Otamendi ibartarra izan da bigarrena eta Jokin Etxeberria amasarra, hirugarrena // 6

B: BOTOAK	B		B		B		B		B		B		B		B		%	
	ERROLDA		EH BILDU		EAJ		ELKARREKIN AHAL DUGU	PODEMOS	IU-LV EZKERRA		PSE-EE		PP		CIUDADANOS		ABSTENTZIOA	
HERRIA	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2015		2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015
Abaltzisketa	246	242	63	70	47	54	15	9	0		3	2	2	1	0	0	45,93	42,98
Aduna	346	343	95	108	45	54	51	45	2		4	0	2	3	2	4	41,33	33,82
Albiztur	252	252	21	33	57	66	30	20	2		10	8	0	0	0	3	51,98	46,43
Alegia	1.260	1.261	269	342	206	234	154	131	10		38	34	40	27	8	12	41,43	35,69
Alkiza	259	262	53	58	43	64	36	25	3		1	1	3	2	0	1	44,79	38,55
Altzo	310	304	112	127	46	37	50	30	2		0	2	3	2	1	1	29,68	31,25
Amasa-Villabona	4.371	4.359	774	890	685	717	681	589	63		270	282	167	170	61	78	38,41	34,57
Amezketeta	716	721	143	178	101	115	89	52	6		9	5	13	12	0	1	49,44	47,02
Anoeta	1.499	1.494	352	382	220	240	235	247	7		83	78	64	55	12	25	33,82	29,38
Asteasu	1.108	1.111	249	275	144	147	155	127	11		25	28	21	22	4	7	44,86	42,84
Baliarrain	95	96	24	41	8	15	8	5	0		1	1	0	0	0	0	53,68	35,42
Belauntza	200	199	34	46	37	35	22	15	2		1	6	1	2	2	2	50	44,72
Berastegi	839	834	181	227	169	155	90	73	3		11	10	13	12	2	3	43,62	40,17
Berrobi	441	445	100	116	50	46	63	63	2		15	13	14	10	5	4	42,86	42,02
Bidania-Goiatz	386	393	98	119	58	54	37	35	2		4	3	5	8	3	2	45,6	42,49
Elduain	176	180	40	46	32	38	16	15	1		0	0	2	1	0	0	48,86	41,67
Gaztelu	118	120	36	30	22	25	23	23	2		0	0	2	2	0	0	27,97	29,17
Hernialde	155	258	38	55	42	50	35	30	2		1	1	2	3	5	5	51,76	42,64
Ibarra	3.228	3.251	546	669	466	524	562	527	37		215	225	102	94	25	40	39,06	33,25
Ikaztegieta	367	368	96	111	53	76	62	53	1		14	9	6	5	2	3	35,69	28,26
Irura	1.223	1.167	201	249	203	227	204	189	12		42	47	47	32	25	26	39,57	31,71
Larraul	182	176	44	50	13	17	31	28	0		3	2	2	1	0	1	45,05	40,91
Leaburu-Txarama	266	263	93	82	49	48	20	20	2		1	0	4	4	1	0	36,09	39,16
Lizartza	447	447	189	215	47	51	40	24	0		0	0	6	1	0	1	36,02	32,66
Orendain	145	141	52	61	31	28	16	15	0		0	1	0	0	0	0	31,03	25,53
Orexa	88	92	64	72	1	1	0	0	0		0	0	0	0	0	0	23,86	14,61
Tolosa	14.801	14.818	2.271	2.596	2.934	3.157	2.568	2.480	188		798	752	553	538	161	218	36,04	31,81
Zizurkil	2.237	2.255	441	530	296	320	344	308	20		155	166	89	85	18	33	38,62	33,35
TOLOSALDEAN	35.761	35.852	6.679	7.778	6.105	6.595	5.637	5.178	380		1.704	1.676	1.163	1.092	337	470		

EH Bilduk lehen postuari eutsi dio, botoak galdu arren

Espainiako hauteskundeetan eskualdeko botoen %31 lortu du koalizio abertzaleak; EAJ izan da bigarren indarra %28arekin, eta Elkarrekin Ahal Dugu hirugarrena %26arekin

Imanol Garcia Landa

Espainiako hauteskundeetan EH Bilduk lortu ditu boto gehien Tolosaldean, 6.679 hain justu, abendutik 1.099 boto jaitsiz (%14 jaitsi). EAJ izan da bigarren indarra eskualdean, 6.105 botorekin, orain sei hilabete baino 490 boto

gutxiagorekin (%7 jaitsi). Elkarrekin Ahal Duguk hirugarren postua lortu du, 5.637 botorekin, aurretik Ahal Duguk eta Ezker Batuak lortutako datuak 79 boto-tan hobetuz (%1 igo). PSE-EE eta PP igo egin dira eskualdean, 1.704 eta 1.163 boto eskuratuz hurrenez hurren. PSE-EEK 28

boto (%2 igo) eta PPk 71 boto (%6 igo) gehiago lortu dituzte. Bere aldetik, Ciudadanos alderdiak 337 boto eskuratu ditu, orain sei hilabete baino 133 gutxiago (%28 jaitsi).

Ehunekoiei begiratu, ikusi daiteke orain sei hilabetezko emaitzekin alderatuz, EAJ eta Elkarrekin Ahal Dugu gerturatu egin direla EH Bildura, EAJk boto galera izan arren. Igandeko hauteskundeetan, eskualdeko botoen %31 lortu zuen EH Bilduk, abenduan %34a zuenean.

EAJk mantendu egin du ehuneko, oraingoan ere %28 lortuz. Elkarrekin Ahal Duguk %26 jaso du, eta orain sei hilabete bi alderdiek batuta %24 lortu zuten. PSE-EEK %8a lortu du, puntu bat igoz, eta PP %5arekin eta Ciuda-

danos %2arekin mantendu dira. Herriz herri begirata, EH Bildu izan da lehen indarra 22 herri-tan. Beste seiak EAJ (Tolosa, Albiztur, Belauntza eta Hernialde) eta Elkarrekin Ahal dugu (Ibarra eta Irura) artean banatu dira. EH



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



IRAGARKI LABURRAK

Salgai

Etxebizitza. Aukera bikaina! Etxebizitza bat saltzen da Alegiako Erbeta kalean. 90m2, bizitzeko prest, oso eguzkitsua, geltokitik gertu, igogailua eta trastelekuarekin. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara: 630 710 490.



Abaltzisketan hauteskunde egunak San Joan festekin bat egin zuen. I.G.L.

«Nahiko paretsua da eskualdeko eta gainerakoen balantzea. Abendutik hona ez da aldaketa handirik izan. Gehiengoak ikuspuntu estatal batetik begiratu die hauteskunde hauei, eta emaitzak nahiko berdintsuak izan dira orokorrean. Guretzako emaitza gogorrak dira, ez dira espero genituenak. Bagenekien guretzako ez zirela hauteskunde errazak, eta lanean jarraitu beharko dugu herritarrekin, orain arte bezala»

ENeko MAIOZ EH BILDU

«Tolosaldeko emaitzekin pozik gaude. Badakigu aukeraketa Madrilera begira egiten dela, eta zentzu horretan gu pozik gaude. Beti ere pentsatuz badagoela alderdi berri baten gorakada izugarria, eta horrek ere etorkizunari begira hausnarketa egiteko balio digula, nahiz eta badakigun Tolosarako erreferente garena eta udal hauteskundeetarako jendeak gurekin kontatzen duela nabarmenki. Gure boto abertzalea fidela da»

ITXAROPENA URKIOLA EAJ

«Zenbait herritan EH Bilduren aurretik geratu gara, Tolosan adibidez. Bagenekien hurbilduko ginela, baina ez genuen espero horrelako aldaketa garrantzitsurik. Gu bigarren tokian geratu gara eta horrek argi uzten du Tolosan aldaketarako zein jarrera dagoen. Tolosaldean gutxienez leku batzuetan gora goaz, eta besteetan mantendu egin gara. Tolosaldeak islatzen du Gipuzkoan eta Euskadin gertatu dena»

IÑIGO CABIECES ELKARREKIN AHAL DUGU

«Tolosan nahiko balantze ona egiten dugu, botoetan igo egin baikara. Gipuzkoan ere mantendu izana positiboa da. Orokorrean, azkenean demostratu egin da zein den ezkerreko alderdi indartsuena, eta ez da izan *sorpassorik*. Eserleku batzuk jaitsi egin ditugu, baina aguantatu egin dugu eta ezkerreko lehen alderdia gara»

CHRISTIAN FERNANDEZ PSE-EE

«Orokorrean gertatu denaren isla da eskualdean ere botoak irabaztea. Aurreko hauteskundeetan ondoren Raxoik akordioak egitea eskaini zuen, batez ere PSOekin. Gero sei hilabete hauetan jende askok kareta kendu du. Ez genituen uste PSOeren zenbait jarrera, eta horrek erakusten ditu orain lortu diren emaitzak. Jendeak ikusi du gobernua izatea garrantzitsua dela aurrera egiteko»

PEIO ATXUKARRO PP

Bildu lehenengoa izan den 22 herri horietatik 13tan bigarren indarra EAJ izan da, eta besteetan Elkarrekin Ahal Duguk lortu du postu hori, tartean Zizurkil, Anoeta eta Asteasu. Tolosan ere bigarren izan da, eta EH Bildu hirugarren postuan geratu da. Iruran oso parekatuta geratu dira lehen hiru indarrak: Elkarrekin Ahal Duguk 204, EAJk 203 eta EH Bilduk 201 boto eskuratu dituzte.

ABSTENTZIOAK, GORA

Abstentzioa igo egin da ia eskualdeko herri guztietan abenduko hauteskundeekin alderatuta. Altzo, Gaztelu eta Leaburu-Txarama izan dira herri bakarrak abstentzioa jaitsi dena. Herri handienetan igo egin da: Tolosan lau puntu baino gehiago igo da abstentzioa, %36raino; Amasa-Villabonan ia lau puntu igo da, %38an jarritz; Ibarra ia sei puntu igo da, %39an jarritz; eta

Zizurkilen bost puntu igo da, ia %39an jarritz. Emaitzek erakusten dutenez, abstentzioak lehenengo bi alderdiei, EH Bildu eta EAJ, eragin die bereziki.

Tolosaldeko datuak Gipuzkoan izan direnen antzekoak dira, alderdi bakoitzak boto kopuruetan izan duen joerari begiratuz gero. Gipuzkoan Elkarrekin Ahal Duguk irabazi du, baina Ahal Dugu eta Ezker Batuak abenduan lortutako kopurutik jaitsi egin da. Bi eserleku lortu dituzte Espainiako kongresuan. EAJ bigarrena izan da, bi eserleku jasoz, eta boto kopuruetan jaitsi egin da. EH Bilduk eserleku bat lortu du, hirugarren geratuz, eta boto kopurutan ere jaitsi egin da. Seigarren eserlekua PSE-EEk lortu du, eta botoetan pixka bat jaitsi da. Kongresurako eserlekuei dagokionez, beraz, abenduan izandako emaitza berdina lortu dira Gipuzkoan.



Jende ugari elkartu da Ibarra bi emakumeen aurkako erasoak salatzeko. I.G.L.

Ibarra bi emakume drogatu eta bahitu dituztela salatu dute

Erasoa Gazte Festetan gertatu zela azaldu dute herriko Gazte Asanbladak eta Emakume Taldeak

I. Garcia Landa Ibarra

Gazte Festetako larunbatetik igandera bitarteko gauean bi emakumeri eraso egin zieten Ibarra, herriko Gazte Asanbladak eta Emakume Taldeak jakinarazi dutenez, emakumeekin eurekin hitz egin eta gero. Azaldu dutenez, drogatu egin zituzten festan zeudela. «Horren ondorioz, hiru orduko denbora tartean ez dira ezertaz oroitzen. Gogoratzen diren apurraren arabera, kontzientzia berreskuratzen ari zirenean, ibilgailu batetik bota zituzten guztiz desorien-

tatuta, Ibarra ez zen leku batean». Dirua falta zitzaizela ohartu ziren gero.

Erasoa salatu dute Gazte Asanbladak eta Emakume Taldeak. «Nahiz eta oraindik gertatu den guztia ez dakigun, gertakari hauek pertsonen burujabetzaren eta oinarritzko eskubideen urraketak izan direla ulertzen dugu», nabarmendu eta «irmoki» salatu dute. Horrelakoak saihesteko lanean segituko dutela berretsi dute, «jendea kontzientziazatuz zein Gazte Festetan martxan izan ditugun brigada feminista bezalako ekintzak sor-

tuz eta landuz». Horrelako jarre-
rek «ez dutela lekurik» esan dute, «ez Ibarra festetan ezta beste inon ere».

Agerraldi jendetsua izan da. Izan ere, Ibarra Gazte Asanbladako eta Emakume Taldeko kideez gain, herriko beste hainbat pertsona eta inguruko herrietatik joandakoak ere izan dira. Hauek guztiek ere bat egin dute erasoaren salaketarekin.

Bestalde, Ertzaintzako iturriek baieztatu dutenez, bi emakumeen salaketa jaso dute polizia etxean, eta ikerketa abian jarri dute.



ERRETIRODUNAK AURRENAK IZAN DIRA FESTAK OSPATZEN

San Pedro Jaiak ospatzen hasi dira Leaburun, Erretirodunen Egunarekin. Igandean izan zituzten ekitaldiak: herriko dantzariak dantzak eskaini zizkieten, eta bertso-bazkaria izan zuten Egaña eta Lizasorekin. Leaburuko sanpedroek jarraipena izango dute bihar, San Pedro egunarekin, eta asteburuko ekitaldiekin. A.IMAZ



San Joan su txikia eta Santa Maria kaperaren emanaldia berrikuntza izan dira, aurten, ekainaren 23ko bezperan. M. IRAOLA

Motzak, baina bikainak

Lau egunetako jaiek alde egin dute Tolosatik, eta malenkonia festazalea usaintzen bada ere, festa zaleek buruan dituzte, jada, hurrengoak.

Itzea Urkizu Arsua

Egunak kontatzetik egunak gogoratzea pasatzen dira tolosarrak, sanjoanetan, txistu, txapel, gorbata eta zapiak prestatzetik, horiek guztiak garbitzera pasa-

tzen diren modu berean. Horixe dute aje egunek: malenkonia gehiegi.

Egutegiaren kapritxoek ia bi egunetara mugatu dituzte aurtengo sanjoanak, baina epe laburreko jaiak ez du gozamenaren eten,

eta irudiek ere oihuka diote: go-goangarriak izan dira, beste behin.

Hotsandikotasunez, egunez, eta inauteri girora asko gertatzen den eromenaz, gauez, udako solstizioaren aitzakian egin-

dako parrandak hizketaldi bakar bilakatu dira, egunotan.

San Joan su txikiak erakarri zituen, hasteko, begiradak eta kameren objektiboak, eta ekainaren 24ko goizak, berriz, minutu gutxiegi eskaini zituen, nahi beste argazki atera ahal izateko.

Festa zinez parte hartzaileetan, ezinbestean, kuadrilla eguna erronka zailena bilakatu zen; eta ez, soilik, hurrengo urteko

antolatzailegai zirenentzat. Eguraldi iragarpenak azken urteetako berorik ekarri ez izana eskertu zuten, beraz, Euskal Herria plazako bazkaltiarrek.

Bukatu dira bada, eta motzak bezain bikainak izan dira. 2017ko ekainaren 24a larunbatarekin iritsiko dela-eta, sanjoanzaleak festak zertxobait luzatzeko itxaropenez dira jada. Hurrengo urtean, ikusi egin behar.



Eguraldiari erreparatu gabe, poza ezkutatu ezinezko bilakatzen da tolosarren aurpegietan, San Joan egunez. M. IRAOLA / N. ROLDAN DE ARANGUIZ / I. URKIZU



Buruhandiek eskopetariekin dantza egin zuten. M. IRAOLA



Ajeari buelta emateko modurik onena izan zen, Kuadrilla Eguna. A. UZKUDUN / AIMAZ

Kirola, plazak betetzearen errudun bakar

I. Urkizu Abaltzisketa

Trikitia eta erromeriak izaten ziren, duela zenbait hamarkada, plazak jendez betetzearen errudun nagusiak. Ezin esan gaur egun hauspo txikiak eta panderoak oinak astintzeko gogorik pizten ez duenik, baina, aurtengo sanjoanetan kirolak nagusi izan dira Abaltzisketan.

Urteroko hitzorduei eutsiz, egitarauan berrikuntzak ere izan dituzte, eta horietako bat aizkora desafioa izan zen, igandean. Maika Ariztegi eta Irune Izkue gailendu zitzaizkion Iñaki Aierberi. Lehenak bi eskuekin aritu ziren, eta azkena, berriz, esku bakarrekin. Guztira, lau kanaerdiko ebaki behar izan zituen alde bakoitzak, eta lau minutuko aldea atera zioten emakumeek.

Zaldi lasterketak, berriz, urteroko ikusmina piztu zuen herrira doan aldapan. Eguraldiak eutsi zion hitzorduari, eta Xanti Telleria nagusitu zen.



Desafioak eta zaldi lasterketak bildu du jende gehien, aurtan. I. GARCIA LANDA

Urtero errepikatzen denaren xarma, gozamen

I. Urkizu Belauntza

Herri txikietan festa txikiak, baina hori ere alda liteke, nondik begiratzen den. Egutegian gorritz margoturiko eguna izaten da, ekainaren 24an, Belauntzan, eta baita haren ingurukoak ere.

Urteroko ohitura eta hitzorduei eutsiz, errepikatzen den horren xarmaz gozatzen ondo dakite, eta San Joan eguneko mezaz, dantzaz eta bazkari legeez harago, aurtan ere izan da, besteak beste, belaunaldi berrientzako gozamenik.

Jolasen zaleak direnek hitzordu tentagarria izan zuten, eta baita animali zaleek ere, Gorritiren pottokek erakarrita.

Tolosan ez dira bakarrak izango, eta Belauntzan ere, izango da hurrengo urteko sanjoanen zain geratu denik.



Berastegiko dantzariak urteroko saioa eskaini zuten meza nagusiaren ondoren. I. GARCIA LANDA

finalak

Uztailak 2, larunbata
10:00etan
Villabonako Bear-Zanan

ataria pilota txapelketa

ESKU PILOTA

BENJAMINAK B



AGIRREZABALA-ZUBILLAGA

TOLOSA-PERURENA

BENJAMINAK



OLANO-MURUA

CESTAU-ZABALA

ALEBINAK



AMUNDARAIN-GABIRONDO

IZTUETA-ELOLA

INFANTILAK



GOROSTIDI-UGARTEMENDIA

ARTOLA-ALTUNA

GOMAZKO PALETA

ALEBINAK



UZKUDUN-AGIRRE

ARRIETA-OTEGI

KADETE-JUBENILAK



ERASUN-BACH

ZUBELDIA-MIREN LARRARTE

INFANTILAK



ELIZEGI-HERRERO

URKOLA-ARANBURU

Etxaburua txapelkun, Etxeberria hirugarren



Jokin Etxeberria amasarra hirugarren gelditu zen igandean, Zizurkilgo Nekola baserriko belardian. A. IMAZ

Gipuzkoako Azkartasuneko Segia Txapelketa jokatu da Zizurkilgo Nekola baserriko belardian

Asier Imaz

Alatzne Etxaburuak irabazi zuen igandean Gipuzkoako Azkartasuneko Segia Txapelketa. Gizonezkoetan, Jokin Etxeberria amasarra azken finalerako sailkatu zen, eta bertan, hirugarren postua eskuratu zuen. Guztira 16 segalari aritu ziren lanean Zizurkilgo Nekola baserriko belardian. Horietatik zazpi Tolosaldekoak ziren. Ezustekorik ere izan zen. Nabarmenena Ainara Otamendik eman zuena izan zen. Gutxi espero zuten mailan ibili zen ibartarra; batetik, Irati Astondoa atzean utziz, eta bestetik, Etxaburua bera oso estu hartuz. Lehen sailean, Otamendik eta Etxaburuak parean amaitu zuten, baina txukuntasuna ere kontuan hartzen denez txapelketa honetan, zizurkildarra jarri zen aurretik. Bigarren sailean, ordea, Otamendik erakustaldia

SAILKAPENAK

Gizonezkoak

1. Julen Gabirondo	5'29"39
2. Iñigo Mercader	5'37"82
3. Jokin Etxeberria	5'47"94
4. Mikel Garaialde	5'53"89
5. Jokin Garmendia	3'08"17
6. Igor Esnaola	3'13"16
7. Peio Argia	3'30"40
8. Jon Otegi	3'30"70
9. Andoni Urrutia	3'34"16

10. Arkaitz Arteaga	3'45"81
11. Iban Pardo	4'08"76
12. Suharrilrazustabarrena	4'09"21
13. Joakin Garmendia	5'31"91

Emakumezkoak

1. Alatzne Etxaburua	4'00"00
2. Ainara Otamendi	4'07"47
3. Irati Astondoa	4'45"61

eskaini zuen, txukun eta bizkor segan eginaz. Bera izan zen onena sail horretan, Etxaburuari bi segundo ateraz. Joxe Gabirondo lagun zuela aritu zen lanean Otamendi. Pozgarria eta sega munduarentzat albiste oso ona, ibartarrak erakutsi zuen maila.

Emakumezkoak 50 metro kartratuko sailetan aritu baldin baziren, gizonezkoak 100ekoan. Eta hemen, Gipuzkoako Txapel-

ketan bezala, Julen Gabirondo nagusitu zen. Eskualdekoei dagokienez, Etxeberriaren atzetik Jokin Garmendia sailkatu zen bosgarren postuan. Baliarraindarra finaleko ateetan gelditu zen, baina Igor Esnaolaren aurretik, eta hori bada zerbait. Peio Argia zazpigarrena izan zen; Arkaitz Arteaga hamargarren eta beti ikuskizuna ematen duen Joakin Garmendia... txapelkun.

Jon Irisarri bigarren, 23 urte azpikoen Espainiakoan

LEABURU-TXARAMA // Alacanten Espainiako errepublikako txapelketa jokatu dira asteburuan. 23 urte azpikoen mailan Jon Irisarri zilarrezko domina lortu zuen. Helmugara hiru txirrindulari iritsi ziren ihes eginda, eta sprintean leaburuarra bigarrena izan zen, Oscar Pelegriren atzetik.

Aitziber Ibarbiak handia egin du Italian, Munduko Kopan

ZIZURKIL // Munduko Kopako proba jokatu da asteburuan Italian, Livignonen, eta zizurkildarra bigarren gelditu da. Proba oso gogorra izan dela esan du Ibarbiak, 3.000 metrotako mendateetan barrena. 35 km-ko lasterketaren irabazlea Elisa Desco izan da, eta Megan Kimmel hirugarrena.

Lara Arruabarrenak lehen erronda gainditu du

TOLOSA // Wimbledon-eko lehen partida irabazi du tenislari tolosarrak, Olga Govortsovaren aurka, 6-2/6-2 eta 8-6. Bi ordu iraundu partidak. Iaz bigarren errondan kaleratu zuten Arruabarrena Wimbleton-etik. Aurretik, Daria Kasatkina errusiarraren aurka jokatu du tolosarrak bigarren partida hori.



JOSE ANJEL AGIRRE, TOKAN NAGUSI

Amaroztarrak zortzi bider jo zuen txapa, San Joan Txapelketan. 15 partaidetan bera izan zen onena. Bigarrena, Demetrio Gomez (7 joak) izan zen, eta hirugarrena Angel Martinez (6 joak). Txapelketa Harizpek antolatu zuen. A.I.



BILLABONA FKE-REN JAIA

Denbora amaierako jaia egin zuten larunbatean Billabona FKE-ko kideek. Bazkarian 310 lagun elkartu ziren, eta denboraldiko jokalarai aipagarrienei sariak eman zizkien. Taldea utzi duten jubenilak ere agurtu zituzten. A.I.



ELKARTEEN ARTEKO TXAPELKETA

Tolosako Elkartearen Arteko Txapelketaren finalak jokatu ziren igandean, Beotibarren. Infantiletan Altunak (Aurrera) irabazi zion Lopetegiri (Kasino), eta kadeteetan, Etxeberriak (Arsenal) Olazabali (Gure Txokoa). A.I.



HERRI KIROL ERAKUSTALDI BIKAINA

San Joan Jaien barruan, Tolosan, herri kirol erakustaldia izan zen Trianguloan, igandean. Maila handiko kirolariak aritu ziren bertan: Idoia Etxeberria, Xanta Sousa, Donato Larretxea, Iñaki Azurmendi eta abar. A.IMAZ



ZIZURKILEN KIROL JAIA

Mendizaleak, pilotariak, trontzalariak, aizkolariak eta lasto altxatzaileak izan ziren larunbatean Zizurkilen. Kirolaren inguruan jaialdi handia ospatu zuten, eta etxeko kirolariekkin batera, ingurukoak aritu ziren lehian. A.I.



PEÑAK TXAPELA GERTU IZANDU

Lau t'erdiko San Joan Sariko finalak larunbatean jokatu ziren Beotibarren. Peña tolosarrak, nagusietan, Errandonearen aurka 22-15 galdu zuen. Promesetan Zubizarreta eta kadeteetan Eiguren izan ziren beste irabazleak. A.IMAZ

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • ataria@ataria.info • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



- IV. URTEURRENA -

Xiker Urretabizkaia Gurrutxaga

(1995-11-3 / 2012-6-27)

Miña ez, oinazea tantaka dugu
hitz bakoitzean orain,
oroitzapenekin josiaz
sendatu behar zauria.

ALTZAGA, 2016ko ekainaren 28an



ASTEARTEA, 2016KO EKAINAK 28
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Naiara Roldan de Aranguiz
Kudeatzailea: Jexux Murua
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.info
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.info

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.info
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.info
Anoetaledea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.info
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.info
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.info
Bezero arretra zerbitzua: **902 82 02 01**



www.ataria.info

ATARIA IRRATIA
107.6 FM / 105.0 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidana-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Dantza pausoak izan dira festen iragarle

Dantza emanaldi «arrakastatsua» izan da gaur hasiko diren Asteasuko San Pedro jaien beroketa ariketa; suziria 'Zenbat zeate?' kuadrillak botako du



Asteasuko haurrez gain, Larraul eta Adunakoek ere egin zuten dantza Asteasuko pilotalekuan. A. IMAZ

Eneritz Maiz Asteasu

Udan sartuta festak ez du etenik izango eskualdean, eta San Joan jaiak bukatu orduko San Pedroek hartuko diote lekukoa. Asteasun, ordea, beroketa ariketak egin dituzte asteburuan, eta larunbat arratsaldean Usarrabi pilotalekua ia txiki geratu zen Asteasu, Larraul eta Adunako dantza eskoletako ikasleen emanaldia ikusteko. Oinkari Dantza Taldearen eskutik izan zen jaialdia.

Gaur arratsaldetik aurrera, ordea, eta igandera bitartean asteasuarrek festarako aukera ugari

izango dute. Gaurko eguna izango dute lasaia, eta hortik aurrerakoetan izango dute zer aukeratu.

SAN PEDRO JAIK

Gaur

17:30. Frontenis eta gizonezkoen pala txapelketaren finala.

19:30. Txupinazoa, *Zenbat zeate?* Bluxa taldearen eskutik.

Ondoren, kalejira txistulariak, buzuhandiak eta Zizurkilgo erraldoekin.

22:20. Mus eta Txintxon Txapelketak. Izen ematea, 21:45ean.

TXUPINAZOA GAUR

Auskalo zenbat lagun igoko diren udaletxeko balkoira, baina suziria jaurtitzeko ohorea, eta aurtengo festei hasiera emango dietenak *Zenbat zeate?* kuadrillako kideak izango dira.

17:30ean, frontenis eta pala txapelketako finalak izango dira jokoan, eta behin 19:30ean, festei hasiera behar bezala emanda, kalejira izango da herrian barrena.

Txistularien erritmora egingo dute dantza Zizurkilgo erraldoiek, eta txiki eta ez hain txikien atzetik ibiliko dira tartean buruhandiak.

AGENDA

Deialdiak

Berrobi. Arantxa Urretabizkaiaren *Zuri-beltzeko argazkiak* liburua aztertuko dute irakurle klubean, 15:00etan, liburutegian.

Irura. Lesbiana, Gay, Transexual eta bisexualen kolektiboaren eskubide-eburuzko panelen erakusketa egongo da ikusgai, gela borobilean.

Tolosa. Amarotzeko 18. Antzerki Astearen barruan, Saioa Aizpurua eta Ane Artetxeren eskutik, Arpa ipuinak haurrentzat euskaraz eskianiko dute, 18:30ean, Amaroako Auzo Etxean. Eta 22:00etan, *Sexjentziak* Bazen Behin Klown taldearen eskutik ikusi ahal izango da, helduentzat eta euskaraz.

Urkizu. San Pedro jaien haisera, suziri eta kanpaiekin, 20:00etan.

28 KANALA

12:30. Ur eta Lur.

13:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

17:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

20:00. Tolosako Udalaren Osoko Bilkura zuzenean.

22:00. Zaindu Zaitetz.

23:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. Mujika, E.

Euskal Herria kalea, 3.

Telefonoa: 943 67 09 15.

TOLOSA. Gauekoa.

Morant, R. Zaballarreta lorategiak, 1.

Telefonoa: 943 67 38 49.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza.

Eskualdeko berriak, artearen txokoa, errezeta eta lehiaketa, deitu 10:45etik 10:55era. Oihana Iguaran Kale Kantoitik. Antton Telleriaren eskutik eguneko abestia.

11:00-12:00. Hamaiketakoa.

Villabona-Aiztondo eta Anoetaldeko albisteak.

12:00-13:00. Entzuteko jaioak.

Musika saioa.

16:00-18:00. Zebrabidea.

Goizeko saioak utzitako onena.

20:00-20:30. Kokondo. Oskar Tenaren musika saioa.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giro eguzkitsua nagusituko zaigu, eta ipar haizea ibiliko da baina epeltzeko joerarekin jarraituko du. Tenperatura, 20-22 gradutan geratuko zaigu, baina eskualdeko punturik beroenetan 25 gradura iritsi daiteke. Eguraldi sanoa geratu zaigu.



Bihar. Ipar-mendebaldeko haizea bueltan itzuliko da, eta zerua estalita mantenduko da orokorrean. Baliteke zirimiri pixka bat egitea, orokorrean gutxi. Arratsalde partean badirudi pixka bat lasaituko dela, eta tenperatura jaitxi egingo da, 20 gradutara.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Jendetza elkartu zen dantza emanaldia ikusteko. A. I.



Mauka
berria

FLYBOARD BIZKAIA

Flyboardean aritzeko aukera Gorlizko hondartzan eta bideoa.

Arrain bat zarela sentitu nahi duzu? Hegan egingo duzu eta itsasoan murgilduko zara, 12 metroko jauziak egin ahal izango dituzu.

ERABILTZeko EPEA: 2016ko irailaren 30era arte.

Eskaera egiteko: www.mauka.eus

64,90€

eskaintza berezia

GORLIZ - BIZKAIA